

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Mungiako Udala**

**Alaitz Erkoreka zinegotziari eskumenak ematea garraio gaietarako.
(2022/12-DELEGFUNC espediente).**

EBAZPENA

Batetik, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituan Legearen 21 artikulua eta ondokoak; bestetik, Toki Araubidearen ganeko Lege Xedapenak ezartzen dituan Testu Bateratuaren 24 artikulua; eta azkenik, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa ezartzen dauden Erregelamenduaren 38 d), 53 eta ondoko artikulua eta 120 eta ondokoak, kontuan izanda,

EBAZTEN DUT:

1. Alaitz Erkoreka Baraiazarrari izendatzea ondoko gaietako zinegotzi arduraduna: garraio gaietako arduraduna izango denari, ondoko ahlmenak eskuordetzea:
 - a) Bere arloko gaiak gidatzea eta kudeatzea, baita hirugarrenei eragiten deutesen ekintza administratiboak ebazteko ahalmena bere.
 - b) Bere arloko gaiak jagokezan ebazpen proposamenak egitea, kasu bakoitzean jakokon organoak ebatzi daizan.
 - c) Sailari jogokozan diru-laguntzak ematea.
 - d) Eskuordetuen esku ixtea martiaren 8koa dan Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 118. artikulua kontratazino-organoari (Alkateari) ezartzen deutesan betebeharrak; honako honek hain zuzen bere: batetik, kontratu txikietako espedienteak batu behar dauden dokumentazioaren ganekoa, eta bestetik, 118. artikuluar jarraituta espediente horretan jaso beharreko edukien egiaztapena. Betebehar horreetatik aparte, zinegotzi eskuordetu horreek kontratu txikien tramitazio-faseak arautzeko prozesuan zehar beste betebehar batzuk bere euki ahal izango dabez, beti bere, Sektore Publikoko Kontratuen ganekoa dan martiaren 8ko 9/2017 Legeagaz eta Mungiako Udaleko barne-araudiagaz bat etorrita, 5.000 eurotik gorako (BEZ kanpo) kontratu txikietan.
Berraztertze errekurtsoak organo eskuordetza-emoileak ebatziko ditu.
 2. Eskuordetze honek Dekretua emon eta hurrengo egunetik gora izango dau eragina; dana dala, Bikaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta udaleko garden-tasunaren atalean argitaratu beharko da.
 3. Dekretu honen barri emotea Udaltzari egiten dan lehenengo Osoko Bilkuran.
 4. Ebazpen honen barri emotea jakokenei, jakitun egon daitezkan eta jakokozan ondorioak izan daizan.
 5. Dekretu honen barri Udaleko Sail guztiei emotea.
- Mungian, 2022ko irailaren 21ean.— Alkatea, Ager Izagirre Loroño